

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

3749 *Hutsen zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 5/2012 Errege Lege Dekretua, martxoaren 5ekoa, auzi zibil eta merkataritzazkoetako bitartekaritzari buruzkoa.*

Auzi zibil eta merkataritzazkoetako bitartekaritzari buruzko martxoaren 5eko 5/2012 Errege Lege Dekretua 2012ko martxoaren 6ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 56. zenbakian; hutsegiteak aurkitu dira testu horretan, eta honen bidez zuzentzen dira:

6. orrialdean, 8. artikulua azken lerroan, hau dioen lekuan: «...14. artikuluan xedatutakoaren arabera», beste hau esan behar du: «...13. artikuluan xedatutakoaren arabera».

11. orrialdean, azken xedapenetako bigarrenaren 6. paragrafoan, hau dioen lekuan: «...idazketa hau izango du 206. artikulua 2. paragrafoaren 2. arauak», beste hau esan behar du: «...idazketa hau izango du 206. artikulua 1. paragrafoaren 2. arauak».